



BIDEGORRIDXE GERNIKA-LUMON MANIFESTUA

Gernika-Lumoko hiribilduko herritarrek, norbere izenean eta osatzen dituzten gizarte erakundeen izenean, euren ahotsak, sormena eta ekintza positiboak batu dituzte bizikletaren erabilera bultzatu eta, orokorrean, mugikortasun iraunkorra ahalbidetzeko.

Ondorioz, honakoa ADIERAZTEN DUTE:

Gernika-Lumok, Busturialdeko eskualdearen errepide bidezko komunikazioen lotune nagusia izanik, ibilgailu motordunen trafiko handia jasan izan du historikoki. Saihesbidearen eraikuntzak arazoa “desbideratu” ahal izan du, hein handi batean, nahiz eta sakoneko arazoari ez dion irtenbidea eman, kotxearekiko leialtasun eta erabilerari estuari, hain zuzen.

Gernika-Lumoko Udalak bide publiko egokiagoak izateko lanari ekin dio, oinezkoari bueltatutako guneeekin eta bestelako neurriekin (espaloiak zabaldu, zebra-bideak konpondu...). Baina ez da kontuan hartu bizikletentzako azpiegiturak jartzea, eta horrek oztopoak sortu ditzake etorkizunean.

Gernika-Lumo Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erdigunean dago, hau da, bere bihotzean. Ondorioz, pertsonak eta ingurumena inguru honen ardatza dira eta iraunkortasuna argudio nagusia da.

Gernika-Lumoko Udalak Ekintza-Planaren bi prozesu sustatu ditu, Agenda 21en baitan, eta udalerriko ikastetxeek urteak daramatzate iraunkortasunaren arloko proiektuak garatzen (Eskolako Agenda 21). Hala ere, bidegorriak ezean, ikasle, guraso eta irakasleek ez dute ikastetxera bizikletaz modu seguruan joateko aukerarik, ez eta praktikaren bidez mugikortasun iraunkorraren ohituretan hezteko aukerarik ere.

Gernika-Lumon, Mugikortasun Iraunkorraren Astearen baitan (irailean), bizikletari loturiko gune, modu eta bizitza aldarrikatzen daramagu duela hamarkada batetik, bizikleta martxen eta zirkulazio-ibilgailu honen bidez. Espazio publikoetan oinezkoen, bizikletaren erabiltzaileen, patinatzaileen edota gidarien arteko bizikidetza bilatzen da.

Horrez gain, azken hiru hamarkadetan Gernika-Lumoko Udalak ez du bizikletaren moduari dagokion mugikortasun iraunkorra aintzat hartu, estrategia, planifikazio eta obra publikoaren planteamenduetan. Esate baterako, saihebidetaren eta Lurgorri-Santa Luzia hiri-zabalgunearen eraikuntzetan, edota kaleen peatonalizazioa eta eraberritzeetan aukerak galdu dira.

Azken finean, egiaztatzen dugu Gernika-Lumo ez dagoela egokitua bizikleta eguneroko bizitzan erabiltzeko eta ez dela segurua (auzoen artean ibiltzeko, eskolara, lantokira, osasun zein kirol zentroetara joateko, edo beste barik, aisialdi ekintzetarako).

Ikusten dugu Bizkaiko Foru Aldundiak Busturialdea-Urdaibai eskualderako aurreikusitako 35 kilometroetatik 5 bakarrik eraiki dituela eta beste 3 baino ez dituela proiektatu.

Horregatik, norbanako eta gizarte eremuko elkarteek ekintza bateratu eta kolektiboaren ondorioz sortutako MANIFESTU honen bidez, Gernika-Lumoko Udalarik, Bizkaiko Foru Aldundiari eta horiek osatzen dituzten eragile politikoei atentzioa eman nahi diegu, honakoa ESKATZEKO:

- Mugikortasun iraunkorra bultzatzea, batez ere motordunak ez diren eta kolektiboak diren moduetan, arreta berezia bizikletaren moduari emanaz.
- Bizikleta Udal planifikazioan txertatzea, hiri diseinu egokiagoa, mugikortasun dibertsifikatuagoa eta, azkenik, herriaren ingurumen kalitatearen eta pertsonen osasunaren hobekuntza eragingo dituen.
- Txirrindularientzako azpiegiturak (bidegorriak,...) eraiki eta egokitzea, eta Gernika-Lumon zein Busturialdea-Urdaibai eskualdean bizikletaren erabilera segurua bultzatu eta bermatzeko neurri egokiak hartzea.

Gernika-Lumon, 2011ko martxoan.

MANIFIESTO “BIDEGORRIDXE GERNIKA-LUMON”

Las ciudadanas y ciudadanos de la villa de Gernika-Lumo, tanto a título individual como a través de las organizaciones sociales en las que se integran, han unido su voz, su creatividad y su acción positiva para promover la bicicleta y todos los medios precisos para posibilitar el modo de circulación ciclable y, en general, la movilidad sostenible.

En consecuencia, MANIFIESTAN:

Que Gernika-Lumo, como nudo central de comunicaciones por carretera de la comarca de Busturialdea, ha sufrido históricamente un tráfico rodado a motor muy intenso. La construcción de la variante de carretera ha posibilitado “desviar” el problema en gran medida, si bien no se ha atacado el problema de fondo de la alta fidelidad y utilización del coche.

Que el Ayuntamiento de Gernika-Lumo ha acometido actuaciones para disponer de vías públicas más amables, con zonas peatonalizadas y otras medidas que devolvían en parte el espacio al viandante (ampliación de aceras, corrección pasos de cebra...), pero no se ha tenido en cuenta, e incluso se ha dificultado a futuro, la implantación de infraestructuras ciclables.

Que Gernika-Lumo se localiza en la zona central de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, esto es en su corazón, siendo las personas y el medio ambiente los ejes centrales de este espacio, y la sostenibilidad su argumento principal.

Que el Ayto. de Gernika-Lumo, en el marco de la Agenda 21, ha promovido dos procesos de elaboración del Plan de Acción y que las escuelas del municipio llevan años trabajando sus proyectos de sostenibilidad (Agenda Escolar 21). Sin embargo, l@s alumn@s, madres y padres y [profesor@s](#), ante la ausencia de un bidegorri en la localidad, no tienen la oportunidad de desplazarse a la escuela en bicicleta con seguridad y, asimismo, educar, con la práctica, en hábitos de movilidad sostenibles.

Que en Gernika-Lumo, en el marco de la Semana de la Movilidad Sostenible (septiembre), se lleva reclamando desde hace una década, mediante marchas en bicicleta y acciones relacionadas con este vehículo de circulación, un espacio, modo y vida ciclable. Se busca la convivencia en los espacios públicos de viandantes, personas usuarias de la bicicleta, patinadoras... y conductores.

Que a pesar de todo ello, y en las tres últimas décadas, el Ayuntamiento de Gernika-Lumo no ha considerado la movilidad sostenible, en su modo ciclable, en sus planteamientos estratégicos, planificatorios y de obra pública, habiéndose perdido oportunidades como los de la construcción de la variante de carretera, el ensanche urbano de Lurgorri-Santa Luzia y la peatonalización y reforma de calles.

Que, en definitiva, constatamos que Gernika-Lumo no es un lugar habilitado y seguro para utilizar la bicicleta en nuestra vida cotidiana (desplazarse entre barrios, ir al centro

escolar, a nuestro lugar de trabajo, a los equipamientos sanitarios o deportivos o, sencillamente, para las actividades de ocio).

Que, finalmente, comprobamos que, en el ámbito comarcal, la Diputación Foral de Bizkaia solo ha construido 5 y proyectado otros 3 del total de 35 kilómetros que tiene planificados para la comarca de Busturialdea-Urdaibai.

Por todo ello, por medio de este MANIFIESTO fruto de la acción unitaria y colectiva de personas y organizaciones de la sociedad civil, llamamos la atención del Ayuntamiento de Gernika-Lumo, así como de la Diputación Foral de Bizkaia, y de todas las formaciones políticas que las integran, para RECLAMAR:

- El fomento de la movilidad sostenible, sobre todo en los modos no motorizados y colectivos, con especial atención al modo ciclable.
- La incorporación de la bicicleta a la planificación municipal, que posibilitará un diseño urbano más armonioso, una movilidad diversificada y, finalmente, la mejora de la calidad medioambiental de la localidad y de la salud de las personas.
- La construcción y adecuación de las infraestructuras ciclistas (bidegorri,...), y la adopción de todas las medidas precisas para promover y garantizar el uso seguro de la bicicleta en Gernika-Lumo y en la comarca de Busturialdea-Urdaibai.

En Gernika-Lumo, marzo de 2011.